



TXOSTENA.

AURREKONTU-EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO HELBURUAK BETETZEARI BURUZ.

Araudi aplikagarria:

- Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 9/2020 Foru Dekretu-Araua, azaroaren 10ekoa, Gipuzkoako toki entitateei aplikatzekoak diren ezohiko eta presazko finantza neurriei buruzkoa

AZTERTUTAKO TRAMITEA:

2021RAKO UDAL AURREKONTUA

Txosten honek hauxe aztertzen du: 2021. jardunaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektuak zein mailatan betetzen duen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak ezarritakoa.

1.- 1/2013 FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUARN ERAKUNDEAK (administrazio-izaerako entitateak edo erakundeak):

1.1.- ERAKUNDEEN ZERRENDA:

EIBARKO UDALA.

Kirol-instalazioen Udal Patronatua



1.2.- HELBURUAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren helburua.

Ondorengo lauki honetan, Udalaren aurrekontuko eta bere Erakunde Autonomoen aurrekontuetako diru-sarreretan eta gastuetan dauden egoera bateratuak jasotzen dira.

DIRU-SARRERAK.

GASTUAK.

KAP.	IZENDAPENA	ZENBATEKOA.	KAP.	IZENDAPENA	ZENBATEKOA.
1	Zuzeneko zergak.	8.056.100,00	1	Pertsonala.	14.601.691,29
2	Zeharkako zergak.	250.000,00	2	Ondasun & zerbitzu erostea.	12.929.905,66
3	Tasak eta prezioak	2.974.581,00	3	Interesak	37.600,00
4	Transf. arruntak.	21.064.632,81	4	Transf. arruntak.	7.112.051,93
5	Ondare sarrerak.	129.450,00	5	Kreditu globala eta ustek.	
6	Inb. Besterenganatzea.	500.000,00	6	Inbertsio errealak	4.071.995,51
7	Kap transferentziak	602.908,03	7	Kap transferentziak	554.250,00
Sarrerak, guztira (1-7 Kap.)		33.577.671,84	Gastuak, guztira		39.307.494,39
Defizita.		5.729.822,55	Superabita.		
8	- Finantza-aktiboak	42.800,00	8	Finantza-aktiboak	45.200,00
9	Finantza-pasiboak.	6.442.222,55	9	Finantza-pasiboak.	710.000,00
Finantza-sarrerak, guztira.		6.485.022,55	Finantza-gastu totala		755.200,00
Diru-sareren Aurrekontua, guztira.		40.062.694,39	Gastuen Aurrekontua, guztira.		40.062.694,39

2021ko aurrekontuak **5.729.822,55 euroko defizita du** Europako Kontuen Sistemaren (SEC) arabera. Ondorio horietarako, gerora doiketa egitea eskatuko lukeen eragiketa esanguratsurik ez denez aurreikusten, kalkulu hori –aurreko laukian ikusten den bezala– sarreretakoa 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuetako 1etik 7ra bitartekoaren artean dagoen aldea edo diferentziazat islatu da, eta hori dena aurrekontu bateratuaz hitz eginda.

2021erako aurrekontuak ez luke aurrekontu-egonkortasunaren helburua beteko. Hala ere, aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez da aplikagarria sartzen den ekitaldian, Ministroen Kontseiluak 2020ko urriaren 6an ezarritakoaren arabera eta, zehatzago, Gipuzkoako toki-erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta premiazko finantza-neurriei buruzko azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretuaren lehen artikuluan ezarritakoaren arabera.



Zor publikoaren helburua.

Datuak, 2021.12.31rako aurreikusitako Zor biziaren kalkulua ateratzekoak.

Banco Santander.	199.500,00
Banco Guipuzcoano Sabadell.	210.790,60
KUTXA.	199.500,00
Laboral	1.356.250,00
GUZTIRA, abenduaren 31n 2021	1.966.040,60
2021rako aurrekontu-eragiketa berria:	6.442.222,55
2021ko eragiketa berriaren amortizazioa	644.222,26
GUZTIRA	7.764.040,89

2020an likidatutako diru-sarrera arruntak 31.501.751,51
(Bateratuak. Aurreikusp. 2020-01-04)

$$\text{Zorraren \%koa:} = \frac{7.764.040,89}{31.501.751,51} \times 100 = \mathbf{24,65\%}$$

2021eko abenduaren 31n, goian aipatutako erakundeek zor bizia, 2020an likidatutako diru-sarrera arruntaren % 24,65 izatea aurreikusten da. Kalkulu hori egiteko, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden eragiketa guztiei dagokien zor biziaren zenbatekotik abiatu da, abalen ondoriozko arriskua barne; lortutako emaitzari formalizatutako eta erabili gabeko eragiketak gehitu zaizkio, baita 2021erako aurreikusita daudenak ere, eta 2021erako aurreikusitako amortizazioak kendu dira.

Gipuzkoako toki-erakundeei aplika dakizkiekeen ezohiko eta premiazko finantza-neurriei buruzko azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako toki-erakundeek zerga-arauak etentzat jotzen ditu, eta horrek esan nahi du zor publikoaren helburua indarririk gabe uztea eta 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako gastu-araua ez aplikatzea.



2.- ONDORIOAK

2021rako Aurrekontu Orokorrak **5.729.822,55 euroko defizita du** eta **% 24,65eko zor bizia** aurreikusten du.

2021ean, zalantzarik gabe salbuespenezkoa izango dena, kontuan hartu behar da Gipuzkoako toki-erakundeei aplika dakizkiekeen ezohiko eta premiazko finantza-neurriei buruzko azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretuaren 2.2 artikuluan xedatutakoa. Bertan adierazten da udalen banakako defizitaren helburua defizit globala Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuz zehaztuko dela. Helburu horiek, gainera, erreferentzia-tasatza hartuko dira, erreferentziako artikulua bosgarren paragrafoan xedatutakoaren arabera.

Era berean, dekretu horretan araututako defizit-helburuak gaindituz gero, toki-erakundeek plan ekonomiko-finantzario bat egitera eta onartzera behartuta jarraituko dute, plan hori epe luzerako kudeaketa- eta plangintza-tresna izan dadin, baina betetze-mailaren ondorioz neurri gehigarriak hartu beharrik izan gabe.

Eibarren, 2021eko urtarrilaren 4an

Xabier Andres Cambrono
Eibarko Udaleko funtsen kontu-hartzailea